



3. GELA PRAKTIKA: GASTROENTERITIS AKUTUA. DESHIDRATAZIOA

Gastroenteritis akutua etiología infekziosoa izan ohi duen mukosa gastriko eta intestinalaren hantura bezala definitu daiteke. Klinikoki gorozki likido kopurutsuekin joaten da eta askotan gorakoak, sukarra edota sabeleko mina ere egon ohi dira.

Mundu-mailan morbiditate eta mortalitate arrazoi garrantzitsua da, urtero 1.5-2.5 milioi heriotz sortaraziz 5 urte baino gutxiagoko umeetan. Oso zifra altuak izan arren, azken urteotan nabarmen jeitsi dira aho-bidezko errehidratazio soluzioen agerpenarekin.

Gaiaren edukiera:

1. Orokortasunak: Kontzeptuak, epidemiologia, patogenia... adinaren arabera

2. Klinika

Deshidratazio graduaren estimazioa

3. Diagnostikoa

a. GEAREN istorio klinikoan aipatu beharreko datuak

b. Miaketa fisikoa

c. Froga osagarriak: beharrezkoak eta indikaziorik ez dutenak

4. Tratamendua

Aho-bidezko soluzio motak

DH arinaren tratamendua

DH ertainaren tratamendua

DH larriaren tratamendua

⇒ DH isonatremikaren maneina

⇒ DH hiponatremikaren maneina

⇒ DH hipernatremikaren maneina

Beste tratamenduak